

EUSKARARI BURUZKO FORU LEGE BERRI BAT EGITEKO BATZORDE BEREZIAREN ONDORIOAK

Ondorioak:

.- Gaur egun Nafarroan euskarak duen lege-estatusa 1978ko Espainiako Konstituzioak, 1982ko Foru Hobekuntzarako Lege Organikoak eta 1986ko Euskararen Foru Legeak osatzen dute nagusiki. Horri gehitu behar zaizkio, alde batetik, Nafarroan bertan onartu diren bestelako arau eta lege-xedapenak, Foru Dekretuak eta Foru Aginduak esate baterako eta, beste alde batetik, Espainiako Estatuak berak sinatutako nazioarteko zenbait itun edo hitzarmen, egun eta legez indarrean daudenak eta ordenamendu juridikoan txertatuta daudenak, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna esate baterako.

.- Euskararen lege-estatusa arestian aipatutako hori izanda, eta lege-estatus horrek, eta bereziki 1986ko Euskararen Foru Legeak eman duenaren edo eman lezakeenaren inguruko balorazioak gorabehera, badago aspaldian Euskararen Foru Lege hori berrikusteko edo berritzeko eskaera sozial eta politiko bat eta, ondorioz, gai horri ekitea zilegi da, baita beharrezkoa ere. Egiteko hori Nafarroako Parlamentura iritsi zen 2017ko urriaren 27an, eta bertan onartutako ebazpenak euskararen legea berrikusteko eta proposamen bat egiteko agindua eman zion horretarako sortutako Batzorde Bereziari. Batzorde Berezi horren lanketaren emaitza dira, hain zuzen ere, txosten honetan jasotako ondorio guztiak.

.- Batzorde Berezi honen ustez, eta 1986ko Euskararen Foru Legeak emandakoaz egin litekeen balorazioa gorabehera, hau da, lege hori euskararen normalizaziorako emankorra eta lagungarria izan ote den edo, aitzitik, normalizazio horretarako hesi bat ezarri eta kalterako izan den, euskarak gaur egun Nafarroan duen lege-estatusa, eta bereziki 1986ko Euskararen Foru Legea, ez da egokia, zaharkituta gelditu da eta berritu eta egokitu beharra dago, adostu beharko den norabidean eta neurrian.

.- 1986tik hona hizkuntza legedietan bilakaera bat gertatu da, bai nazioartean eta bai gure esparru hurbilean eta, besteak beste, lanabes eta tresna berriak sortu dira hizkuntza gutxituen sustapenerako eta hizkuntza eskubideen babeserako: 1992ko Erregioetako eta Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna, 1996ko Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, eta 2017ko Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa, besteak beste.

.- Nafarroako gizarteak berak ere, bere osoan, bilakaera sakona izan du. Gizarte harremanak, harreman instituzionalak, eta baita herritarrek erakundeekin dituzten harremanak, aldatu egin dira, besteak beste informazio-teknologiaren garapenaren ondorioz, eta baita gizartearen bilakaera sozial, ekonomiko eta kultural logikoaren ondorioz ere. Hori horrela izanda, zentzuzkoa eta are

ezinbestekoa da legeak, hizkuntza-legeak barne, eta lege horien egiturak eta edukiak zehazki, errealitate berrietara egokitzea.

.- Bestalde, 1986ko Euskararen Foru Legean ezarritako hizkuntza-zonifikazioak ez dio Nafarroako errealitate eta bilakaera soziolinguistikoari erantzuten. Sortu eta ezarri zenean ere ez zen irizpide zientifiko edo soziolinguistiko sendoetan oinarritu. Zonifikazio zehatz hura, udalerrien artean egin zen banaketa zehatz hura, eta orduan zonifikazioari eman zitzaion forma eta eduki zehatza ezartzeko irizpideak ez dira inoiz azaldu, ez daude inon jasota eta argudiatuta, eta Batzorde Bereziak berak egindako saioetan ere ez da argitu zonifikazio horren oinarri zientifikoa eta teknikoa zein izan zen, ezta orduan ardura izan zutenei zuzenean galdetu zaienean ere.

.- Batzorde Bereziak euskararen legezko estatusari buruz egindako eztabaidan zehar korapilo nagusi batzuk identifikatu dira: NAFHLO, ofizialtasunaren estatusa, hizkuntza eskubideen zehaztapena, euskarak funtzio publikorako sarbidean behar duen tokia, euskararen erabilera administrazioan, eta euskararen tokia irakaskuntzan, batez ere. Korapilo edo auzi nagusi horien inguruko ikuspegi ezberdinak agertu dira, bai adituen artean eta bai parlamentu-taldearen artean, eta gai horiekiko hainbat ñabardura egin da. Nafarroan euskararen lege-estatusak aldatuz gero, korapilo eta auzi horiei guztiei heldu beharko zaie eta irtenbide bat eman.

.- Euskararen ofizialtasuna da ziur asko, eta ofizialtasun hori lurralde osora hedatu behar ote den zehazki, eztabaidaren muin-muinean dagoen gako nagusia edo gako nagusietako bat. Ofizialtasuna lurralde osora hedatzearen inguruan Nafarroako Parlamentuaren gehiengoak adostasun espliziturik agertu ez badu ere, gehiengoak ez du aukera hori baztertzen, eta ofizialtasunak izanen lituzkeen ondorioak argitzeak eta adostekak ekarriko du estatus hori erabaki politiko eta instituzional baten bitartez Nafarroa osora hedatzeko proposamena egitea edo aukera gisa alde batera uztea. Eztabaida irekita dago, horrenbestez.

.- Batzorde Bereziak hainbat saio egin ditu, apirilaren 18an lehenengoa eta azaroaren 27an azkenekoa, udako hilabeteak tartean 8 hilabeteko epean beraz, eta bertan parte hartu duten parlamentu-talde gehienek adierazi dute balizko aldaketa bat jorratzeko, agertu diren korapiloak eta horiekiko ikuspegi ezberdinak argitzeko, eta adostasuna lortuko duten proposamenak partekatu eta eztabaidatzeko prozesu bat egiteko prestasuna dutela.

.- Batzorde Bereziak, horrenbestez, adierazten du euskararen lege-estatusa berrikusi egin behar dela, horretarako elkarrizketa eta akordio politikorako prozesu bat gauzatu behar dela. Batzordeak prozesu horretan ezinbestekoa eta funtsezkoa izan den lanketa bat egin du -iritzi-trukaketa, gogoeta nahiz eztabaida sakona, informazio- eta proposamen-bilketa-, baina ikusita prozesua ez dela agortu eta Batzordeak berak dagoeneko luzatu egin den epe jakin bat zuela bere egitekoa osatzeko, Nafarroako Parlamentuko parlamentu-taldearen

esku uzten du prozesua burutzeko ardura hori, legegintzaldiko une honetan haiek egoki deritzoten moduan eta erritmoan kudeatu dezaten, eta denei ahalegina eskatzen die urrats eraginkorrak eman daitezen euskararen lege-estatusa egokitzeko eta berritzeko adostasunerako bidean, Nafarroako Parlamentuak 2017ko urriaren 27an emandako bere ebazpenean esleitutako egitekoa osatzeko.